



## ALIANTZAK

Gure enpresa aurrera eramateko eta gure produktua hornitzeko, Euskal Herriko mikroenpresekin aliatuko gara. Mikroenpresa hauek, gurina ekoiztuko dute eta haietatik lortuko dugu gure produktuaren ontzikia betetzeko behar dugun elikagaia, gurina. Hau esanda, ikusi daiteke, balorezko proposamenean aipatu dugun antzera, gure produktua km 0koa izango dela eta honekin ziur gaude oso erakargarria izan daitekeela produktuaren kontsumitzaileentzat. Azken finean, mikroenpresa hauek baserri batzuk izango dira eta hauetan hazi egin diren animalietatik lortuko dira beharrezko elikagaiak gurina ekoizteko eta gure produktua aurrera eramateko, hala nola: esne-gaina, esnea eta koipea. Esan daiteke, gaur egun, gero eta pertsona gehiago fijas direla eta aztertzen dituztela erosi behar dituzten produktuen etiketak, ea naturalak eta osasuntsuagoak diren jakiteko; beraz, ondorioztatu dezakegu, salgai jarriko dugun produktua arrakastatsua izateko aukerak dituela. Jarraian, garrantzi handikoa izango da guretzat mikroenpresa hauekin aliantza bat mantentzea, lan asko kenduko digutelako, azken finean, ez dugulako gure gurin propioa ekoiztu behar eta hura egiteko makinetan diru kantitate handia gastatzea sahiestuko dugu aldi berean. Honekin batera, enpresa txikiak sustatzen lagunduko dugu, haiei aipamena eginez errekonozimendu gehiago izatea lortuz. Beste alde batetik, sare sozialekin eta telebistarekin ere harremanetan egongo gara eta aliantza moduko bat sortuko dugu, Facebook-ekin batez ere, helduak gehien erabiltzen duten sare soziala dela jakin dugulako eta hauek izango direlako gure produktuaren kontsumitzaile nagusienak. Esan dezakegu oso garrantzitsua dela guretzako harreman hau mantentzea gure produktua iragarria izan dadin kontsumitzaile gehiago erakartzea ahalbidetuz.